

hiruka

Gabonetako berezia

166. zenbakia

2020ko abenduaren 15a



Ate-joka gatoz

KAISHOP!

Zer gura
dozu?
...erosi
euskaraz,
getxon!



Kaishop
euskaraldiarekin
bat!



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno,
Hodei Torres, Ander Zarraga, Unai Brea

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Kolaboratzaileak: Iratze Ormatza Imatz,
Alex Orbe

Filmazioa eta Inprimategia: Comeco Gráfico

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Aurkibidea

ZERGATIK EGITEN DU ZZZZZZ ZAZAK? Ipuina.....	4-5
MUNDUKATUAK Beste herrialdeetako Gabonetako errezetak.....	6-7
UMEENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK	8-9
MADE IN URIBE KOSTA Eskualdeko artisauak	10-13
HELDUENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK	14-15
HIRUKIRA OLGETAN Umeentzako denbora-pasak	16-17
PUBLIERREPORTAJEA	18
OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRENTZAKO ESKUTITZA	19-20
2020ARI AGUR Urteari begirada, hamabi bertsotan.....	21-33
ELKARRIZKETA Jone Uria eta Unai Mendiburu, ALBEkideak.....	34
GASTRONOMIA-GIDA Gabonetako proposamenak	35-39
ZEURE BURUARENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK	40-41
IRAGARLEEI ESKER ONA	42-43
HIRUKALAGUNENTZAKO ZOZKETAK	44-45
HIRUKAZALEEI AGURRA	46

Zuen ekarpen txikiak dira gure sostenguetako bat, eta asko kolokan daude orain, gizartearen eta ekonomiaren arlo askotan paralisia eragin duen osasun-larrialdi honen erruz.
Horregatik, zure laguntza materiala ere behar dugu aurrera jarraitzeko.

INOIZ BAINOAGO, ZU ZARA GILTZA!

HIRUKAlagun egitera animatzen zaitugu, urtean 35 euroko ekarpena eginda, edo gure 5. urteurrena dela eta martxan ipini dugun Eman Bostekoa HIRUKAri kanpainan parte hartzera (bost euroko ekarpena eskatuko dizugu).

Horretarako, jarri gugaz harremanetan:
☎ 688 821 368 ✉ administrazioa@hiruka.eus



Iratze Ormatza Imatz

Bakioko eskolatik, Mungiako institutura. Handik Ingalaterrara ingelesa ikasten, eta gero Soziologia, York eta Kenteko unibertsitateetan. Unibertsitaterako lanak ugari idatzi nituen; sormenari, baina, etxera bueltan ekin nion, euskaraz. Kronika-liburu bat daukat kalean mendebaldeko euskaraz, *Hegoak*, Hego Ameriketara egindako bidaiari buruz. Handik hona, 27 ipuin argitaratu ditut helduentzat, Idatz&Mintz-en batez ere. Honakoa bosgarrena da Hirukan. Ea alabari bezainbeste gustatzen zaizuen.

Saguzarrek zz ultrasoinua egiten dute ingurua belarriekin ikusteko. Den-denek ez, Zazak zzzzzzz egiten du. Luzzzzzzzeegia. Eta orain zer? Zelan moldatuko da? Zer esango diote lagunek? Zergatik egiten du hain luzzzzzzzea?



Zergatik egiten du zzzzz

Zerbait igarri du Zaza saguzarrak ahoan, aharrausi egin duenean. Inguruko saguzarrak nagiak kentzen, eta elkarrekin berbetan dauden bitartean, haginak eta hortzak ukitu ditu mihiarekin: Zer izango ote da? «Ai, ene!, ai, ene! ai, ene!» esan dio isilik bere buruari: «Baina... baina... halakorik! Noiz hazi zait? Bat bakarrik? Eta bestea? Ai, bestea ez. Ai, ene! Letagin bat bestea baino gehiago hazi zait negualdian!». Ahoa zarratu, letagina kanpoan geratu zaio. Kezkatu egin da: «Besteak konturatuko dira? Letagin luzea ikusiko dute? Barre egingo didate?».

Goseak hilik dago, negualdi osoan lotan eman eta gero. Saguzarrak kanpora joanda daude; hegoak astindu, eta bere burua ondo kokatzeko, ultrasoinua egin du: zzzzzz. Lar luzea da hori, baina. Ondo gogoratzen da: zz izan beharko luke. Berriz ere, ahalegina egin du, baina zzzzzz atera zaio. «Ai, ene! Ai, ene!

Letaginak ez dit uzten ultrasoinua ondo egiten!». Kezkatu egin da: «Besteak konturatuko dira? Ultrasoinu luzea egiten entzungo dute? Barre egingo didate?».

Besteen atzetik abiatu da Berangoko bunkerretik kanpora, hondartzen gainetik. Gaueko burrunbak entzun, eta badakite non dauden euliak, eltxoak-eta, kra-kras jaten dituzte hegaz doazela; ziru-zira entzun, eta badakite gaueko tximeletak dituztela gertu, klik eta barrura. jaten ditu Zazak, pozik ondo ostendu duelako letagin luzea orain arte. Isilik, ekinean dabil ea zzzzzz laburtzen duen. Plentziako paduran ere, lagunek ez dute ezer asmatu, hango zomorroekin oturuntza egin dutenean.

Gorlizko itsasargira joan dira kuadrillakoak, eta atzetik bera. Letagina gehiago haziko ote zaion kezkatuta pentsatzen doala-eta, nahikotxo atzeratu



zz Zazak?

da. Itsasargia non dagoen jakiteko ultrasoinua bota du: zzzzzz, luzeegia. Berriz ere ahalegindu da zz egiten, baina zzzzzz atera zaio. Itsasargian argia noiz helduko den jolasean dabilta lagunak, eta ajaja egin diote: «Zer da soinu hori, Zaza? Oraindik ikasten, ala? Eta letagin hori? Ze luzea den!!! Zanga hegaztiaren mokoaren antza dauka?»; ijiji eta ajajaja. Amorruren amorruaz, aurpegia gorritu zaio Zazari, eta ezinaren ezinaz, negar tantak agertu zaizkio begietan. Haserre, letagina apurtzen ahalegindu da haitzen kontra, kas, kas. Gogorregia, sendoegia da letagina, ostera.

Isil-isilik joan da kuadrillaren atzetik Lemoizko zentralera, Urdulizeko aspaldiko baserrien gainera, eta Erandioko fabrika zaharretaraino. Iazko lagunak bila sartu dira fabrikarik eta zaharrenean kuadrillakoak. Zaza kanpoan geratu da bakarrik, barruan berari inork barre ez egiteko, eta zzzzzz laburtzen ikasteko. Ekinean ibili da, baina ezin, zzzzzz luzea ateratzen zaio

beti. Lagunak aspaldi sartu direla-eta, barrura egin du buruagaz. «Ai, ene! Ai, ene!». Hiru gizon daude makilaka saguzar-kuadrillaren kontra; guztiz galduta daude lagunak, noraezean. Ez dakite nondik jo handik ateratzeko. Zazak zzzzzz deitu die: zzzzzz, zzzzzz. Lagunek Zazaren soinu berezia ezagutu dute, eta ahal izan duten moduan, ddarrast egin, makilen dzasta saihestu, eta kaxk-kaxk hegoak astinduz Zazarengana joan dira. «Eskerrik asko, eskerrik asko» esan diote arnasestuka. Elkarrekin joan dira Lamiakora baina laminak ez dira han egon. Gero Aixerrrotara egin dute hegaz, argiak harik eta gehien saihestuz, eta, azkenik, bunkerrera, astoak arrantzaka hasi eta oilarrak kukurruku jo baino lehenago. Etxean, lagunak fabrikakoa kontatu diete helduei, eta hegoak txalo egin diote denek Zazari, baita egiteko eskatu ere: zzzzzz, zzzzzz. Irribarretsu, letagin luzea laztandu du mihiarekin Zazak.

Gabonetako jan-edana, munduan

Sora Ryu | Korea



«Jaki koloretsuek osasuna adierazten digute»

Tteokguk platera, osagaiak

Oilasko-salda, *tok* izeneko arroz egindako txanpon-formako pasteltxoak, okela apur bat, arrautzak eta porrua.

Modu bitara ospatzen dute urte aldaketa Korean, Sora Ruy korearrak azaldu duenez. Alde batetik, Gabon kristauak dituzte, hemengoen modukoak; beraren ustez, izaera komertzialagoa dute han: opariak egiten dituzte, eta lagun edo lankideakaz jatetxe batean ospatzea da normalena. Bestetik, Korean erlijio nagusiak budismoa eta konfuzionismoa dira, eta horietan ohitura da ilargiaren egutegiko urteberri-eguna ospatzea, urtarrila eta otsaila bitartean. Egun honetan familia elkarregaz batzen da, aiti-ta-amamen etxean edo osaba nagusiarenean, eta bertako hainbat jaki prestatzen dituzte. Hala ere, zalantzarik gabe, egun horretako jakirik adierazgarriena *Tteokguk* izeneko zopa dela argitu du korearrak. Plater horrek salda, arroz egindako pasteltxoak eta okela apur bat daroatza; hala ere, motela denez, tortilla fin bat eta porrua ere jartzen dizkiote, kolore eta zapore gehiago emateko, hain zuzen ere. Apaingarri horiek esanahi bikoitza dutela dio Ruyk: lehenik, platera prest dagoela eta inork ukitu ez duela adierazten dute eta, bestetik, Ekialde Urrunean uste dute jateko koloretsuek osasungarriak direla adierazten dutela. Jateko horiekaz batera, umeak *Handok* Koreako jantzi tradizionalakaz jantzen dituzte, eta *makgeolli*, arroz-ardoa eta *sojun* izeneko likorea edaten dituzte, besteak beste. ◀

Nicolas Sanchez | Kolonbia



«Etxe denetan topa daitezke gozokiak Gabonetan»

Gazta-kruxpetak almibarragaz, osagaiak

Gazta freskoa, *costeño* gazta (*feta* gazta modukoa), arto-irina, tapioka, azukrea, arrautzak, gatza, gurina, ekilore-olioa eta ura edo esnea.

Duela hiru urte ekarri genuen orriotara Nicolas Sanchez kolonbiarra, bere herrialdean Gabonak zelan ospatzen diren ezagutarazteko (ikus HIRUKA 113. zenbakia). Oraingoan, aldiz, garaiotarako postre tipiko bat zelan prestatzen den erakutsiko digu; izan ere, gogoratu duenez, Gabonetako gozokiak tradizio handikoak dira Kolonbian: «Etxe denetan aurki daitezke». Gazta-kruxpetak almibarragaz egiteko errezeta proposatu du. Haste-ko, osagai denak nahastu beharko ditugu, esnea izan ezik; «azken hori amaieran gehitu behar zaio, oreka urtuta ez egoteko. Hura lodi dugunean, laberako hautsak bota, dena ondo nahastu eta 20-30 minutuz gordeko dugu. Ondoren, bolatxoak egingo ditugu, kroketak bailiran. «Egokiena da ez izatea oso handiak, barrutik ondo egin daitezen; ezta oso txikiak ere, oliotan frijitzen ditugunean kanpotik txigor daitezen». Frijitzeko olio ez da oso bero eduki behar, bolatxoak 20 minutuz frijitu behar direlako. Onena da olio 155-160 graduan edukitzea, gutxi gorabehera; izan ere, azaldu duenez, beroa handiegia bada bolatxoak deformatu egingo dira, edo lehertu. Behin bolatxo denak prest ditugula, plater batean ipini eta etxean egindako almibar-ontzi bat gehituko diogu aurkezpenari. Bolatxoak, euren aldetik, edozer gauza erabilita aromatiza daitezke, hala nola kanela, anisa, iltzea, pipermina edo «gura duzuna!». ◀

zehir

Munduko leku askotan ospatzen dira Gabonak, eta denetan garrantzi handia izaten du jatekoak. Nork bere plater tipikoa du, eta denak dira tentagarriak, zalantza gabe. Hona hemen Uribe Kostako zenbait lagunek emandako errezetak.

Javier Cantizano | Argentina



«Argentinan jaki hotzak jaten ditugu, han uda da eta»

Oilaskoa Proventzako erara, osagaiak

Oilasko oso bat edo oilasko-bular handiak, patatak, hezur bako oliba batzuk, 5 berakatz-atal, salbia apur bat, erromero apur bat, oliba-olioa, gatza eta pipermina.

Sortzez Buenos Airesekoa da Javier Cantizano. Orain dela urte bi etorri zen Euskal Herrira, bertan zituen senideengana, eta Itzubaltzeta/Romon bizi da ordudanik. Musikaria da ogibidez eta, besteak beste, gitarra-eskolak ematen ditu Algortan. Buenos Aireseko Gabonetako menuak ekarri ditu gogora: «Neurri handi batean, jaki hotzak jaten dira, han uda delako eta bero handia egin ohi duelako. Hala ere, kultur globalizazioaren ondorioz, fruitu lehorrak, turroia eta halakoak ere egoten dira mahaian». Argentinan ezinbestekoa da okela, hori bai. «Askok *asadoa* prestatzeko joerari eusten diote garaiotan ere», dio Cantizanak, «eta oso tipikoa da, bestalde, oilasko erreka jatea, mota askotako entsaladakaz batera, diodanez, jaki fresko ugari erabiltzen baita». Gabonetan ohikoak diren oilasko-errezeten artean bat aipatu digu Cantizanak: labean prestatutakoa, Proventzako erara. Labea 200 graduan berotzen den bitartean, patatak ebakiko ditugu zati txikiak eginez, eta uretan egosiko ditugu hamar minutuz, gatza ere gehituta, «sardexka bat erraz sartzeko moduan egon arte, baina ez leunegi egon arte». Patatak laberako zeramikazko plater batean ipini, olibak, salbia, erromeroa eta olioagaz batera; ondoren, oilaskoa olio oso berotan eduki zartaginean, kanpotik egiteko, eta azkenik dena labean sartu, «8-15 minutuz, oilaskoaren tamainaren arabera». On egin! ◀

Jocelyn Bayangat | Filipinak



«Erraz egiten da 'pansit'-a, eta asko asetzen du»

Pancit edo pansit, osagaiak

Arroz-fideoak (kilo bat, 10 lagunentzat), oilasko oso bat, azenario 2, aza (kilo erdi), lekak (kilo laurden), pipermina, gatza, olio, soja-saltsa, tipula, berakatz.

Daborduko mende laurden egin du Getxon Jocelyn Bayangat filipinarra. Gustuko du sukaldean jardutea, eta Gabonak ailegatu orduko haren etxean ez da falta izaten bere jaioterriko plater tradizionalik. Oraingo honetarako, hango jai esanguratsu denetan (zer esanik ez urte-amaierako hauetan) oso tipikoa den *pansit* edo *pancit* prestatzeko errezeta eman digu. Ospe handiena Filipinetan lortu badu ere, Txinatik ei dator platera, eta gutxi gorabehera «arin prestatzen dena» esan gura du beraren izenak. Euskal Herrian erraz erosteko moduko osagaiakaz zelan prestatu azaldu digu Bayangatek: «Lehenengo, oilaskoaren karkasa bereizi eta haregaz salda egiten hasi behar da. Bitartean, barazki denak, berakatz, tipula... ebakitzen hasiko gara, fin, juliana eran. Ondoren, berakatz eta tipula sutan sueztituko ditugu. Gorrituta daudenean, oilaskoaren bularra gehituko dugu (aurrez apur txikietan zatituta izango dugu, eta minutu gutxi batzuk egosita), baita barazkiak ere». Lekak eta azenarioak lehenik, eta aza ondoren, «egosteko denbora gutxiago behar du eta». Dena gorrituta dagoenean, soja-saltsa eta aurretik prest genuen oilasko-salda bota beharko dugu eta, azken unean, arroz-fideoak, horiek ere aurretik apur bat egosiak. «Orduan fideoak mugitu, baina kontuz, apurtu barik», aholkatu du Bayangatek. «Erraz egiten da, eta asko asetzen du», gehitu du. ◀


Etxeko txikien bizipoza pizteko

Distinto! UMEENTZAKO OPARIAK



Laubide, 4. SOPELA
Tel.: 944 048 935
distintosopelana@gmail.com
www.distintosopelana.com

- 1 **LITTLE DUTCH** Medikuen maletaxoa (3 urtetik gora).
29,95 €
- 2 **LUDILOren «Batalla de genios»** (6 urtetik gora).
21,95 €
- 3 **GLOBBER** argidun patinete tolesgarria.
69,95 €




Arbi ERREALITATE AREAGOTUAN OINARRITUTAKO LIBURU ELKARRERAGILEAK



Iker Burguerak egindako lanak
contact@arbibook.com
www.arbibook.com

- 4 **ARBI 1, 2, 3 eta 4** zenbakiak.
17 € ale bakoitzeko
- 5 **LORA** letrak lantzeko liburua.
17 €
- 6 **ARBI** koloreztatzeko liburua.
12 €



Toys Maniatic JOSTAILUAK



Juan Bautista Zabala, 8. ALGORTA
Tel.: 946 129 354/688 736 025
toysmaniaticalgorta@gmail.com
www.facebook.com/toysmaniaticalgorta

- 7 **BARRIGUITASen** eraikin zoroa.
79,95 €
- 8 **DRIFTRAX** autoa, irratiz kontrolatua eta derrapatzailea.
49,95 €
- 9 **LEGO DUPLO** lurrunezko trena.
68,95 €



aukerak

Laster ibiliko dira etxez etxe Olentzero eta Mari Domingi. Dena prest zurera datozenerako? Hona hemen hainbat ideia, etxeke txikiak aurpegietan irribarrerik handiena sortzeko. Goza ditzazuela!

Oveja creativa DISEINU GRAFIKO, ILUSTRAZIO ETA WEB-ZERBITZUAK



Tel.: 946 533 095 / 639 922 258
hola@ovejacreativa.com
www.ovejacreativa.com

- 10 **Martin, Lea eta Ganbarako Liburu Magikoa.**
14,99 €
- 11 **Martin, Lea eta Denboraren Harria.**
14,99 €



10

11

Hasteko PLASTIKORIK GABEKO PRODUKTUAK



Algortako etorbidea, 61. ALGORTA
Tel.: 623 197 799
hasteko@hasteko.es

- 12 **BOCK & ROLL eta SNACK & GO ogitartekoetarako estalkiak.**
9,95 € eta 9,50 €
- 13 **Oihalezko pixoiak.**
17,50 € / 24 €
- 14 **CHILLY termoa.**
20 € / 30 €



13



14



Zugatik, gugatik, sortu zaintzaren aldeko joera

Doako bidalketak perintsulan!



@allomadewithlove

www.allomadewithlove.com

Made in Uribe Kosta; eskualdean



INES BERMEJO | GETXO
Txapak eta kamisetak

«Umorearen bidez erantzuteko kamisetak osatu ditut, besteak beste»

Arte Ederretan lizentziatu ondoren, Ikuskizunetako Arte eta Zientzietako Masterra egin zuen Ines Bermejo getxoztarrak, EHUn. Ikasketak amaitu ondoren, Europako hainbat hiritan joan-etorrian ibili da bere proiektu propioak sortzen, hala nola Milan (Italia), Berlin (Alemania) eta Lisboan (Portugal). Artista gisa, azaldu duenez, asko atsegin ditu dantza, collageak eta bideo-sorkuntza. «Egindako artelan bakoitzaren ostean bilaketak, prozesuak eta konexioak sortzen dira», dio Bermejo.

Txapak egiteko makina lortu ondoren, kapsulatutako minicollage proiektuari ekin zion getxoztarrak. Hala, errepikaezinak diren piezak sortzen ditu, collage txikidunak, bakarrak. Joan den urteko Bilboko Arte Liburu Azokan eta Gasteizko Mazokan aurkeztu zuen lana, eta publikoari formatua interesatu zitzaionez, proiektuagaz aurrera egitea erabaki zuen. Martxoan, gainera, konfinamendua hasi zenean, bete-betean egin zuen txonbo horretan, denbora eta materiala soberan zeukalako. Horrez gainera, dibertigarriak eta pentsaraztekoak diren esaldiak dituzten kamiseten zigilua sortu berri du, «umorearen bidez norbaiti erantzuteko modu berezia dira kamisetok, mezu zuzenak edo puntu pikanteak dutenak», iragarri du. Amets kamisetak komertzioari eskerrak eman gura dizkio algortarrak, «proiektuarekin lagundu ninduten hasieran, bertan kamisetak inprimatuta».



UXUE ZARATE MENDEZONA | ERANDIO
Traputxu, bufandak eta arrakadak

«Pentsatu nuen kamiseta zaharrei bigarren bizitza ematea»

Etxean hasi zen Uxue berarentzako zapitxozko bufandak eta antzeko osagarriak sortzen. Bere bufandengatik geroz eta lagun gehiagoren eskariak jaso zituen, azkenean, bere produktu koloretsuak inguruko herrietako azoketan zein sare sozialen bitartez erakutsi eta saltzea erabaki zuen, Traputxuek izenpean.

Ahal duen heinean, ingurukoek ematen dizkieten kamiseta edo osagarri zaharrak erabiltzen ditu telaz egindako bufandak edo arrakalak sortzeko. Hasieran zapitxozko harilak erosten bazituen ere, «hainbeste arropa botatzen dogula konturatu nintzen, bigarren bizitza bat ematea pentsatu nuen», dio erandioztarrak.

Bere produktu identifikagarrienak eskuz ehundutako bufandak dira, baina arrakadak, lepokoak eta bestelako osagarriak ere egiten ditu. «Belarritakoak dira errazen saltzen direnak», aitoritzen du.

Gizarte Langintza ikasketakaz tartekatzen duen hobby horrek hainbat azokatan parte hartzera eramanez dio azken urteotan. Facebook eta Instagram sare sozialetan ere ikusgai ditu bere eskulanak; eskariak ere jasotzen ditu bertatik. «Nire produktuak bakarrak dira, ez daude bi berdin»; horregatik, zerbait berezia gura izanez gero, enkarguz ere lan egiten duela dio.



eginda

Kate handi eta kontsumo azkarretik ihesi, material naturalez eta kalitate handiko lehengaiez egindako produktu ederrak sortzen dituzte eskualdeko hamaika lagunak. Hona hemen artisau horien lagin txiki bat.



JUNE LARRINAGA | ALGORTA
Lakhet eskulanak

«Ez dugu baztertzen gauza gehiago egitea etorkizunean»

Lagun biren artean entretenimendu gisa hasi zena, lagun eta gertukoei oparitzeko bitxiak egitekoa, eskulan proiektu serioago batera salto egitea erabaki zuen June Leire bere lagunagaz. Hala sortu zuten biek Lakhet eskulanen proiektua. Diotenez, zilarra eta harri erdibitxiak darabiltzate euren lanak egiteko, hala nola lepokoak, eskumuturrekoak eta zintzilikariak; 12 eta 25 euro artean saltzen dituzte denak. Aitortu dutenez, trebeak dira biak eskulanetan, eta ez dute baztertzen etorkizunean bestelako produktu batzuk egitera salto egitea, «nork daki». Bilboko Gabonetako azokatxo batean erakutsi dituzte euren eskulanak joan den abenduaren 12an eta 13an. Hala ere, Interneten ikusgai daude eskuz egiten dituzten bitxi denak: Instagramen eta horretarako propio sortu duten webgunean. Azaldu dutenez, leku bietan jarri dituzte eurakaz harremanetan jartzeko bideak, baita eskariak jasotzeko ere, hala nola WhatsApp, e-mail zein Instagrameko mezu pribatu bidez. Aitortu dutenez, sortutako bitxi denetatik arrakastatsuen da *Sophie* izenekoa (lehenengo bildumako lepokoek euren kuadrillako lagunaren izenak daramatzate), eta huraxe da aldizkarion HirukaLagunen txokoak zozkatuko dugun oparietako bat (ikusi 44-45 orriak). Dena dela, jakinarazi dutenez, enkarguak ere jasotzen dituzte, norberak gura duen moduko bitxia egiteko. ◀



BEGOÑA DIAZ ALCARAZ | ALGORTA
Wild Waves, eskuz egindako poltsak

«Egunero sortzen ditut nire produktu etarako diseinu berriak»

Txiki-txikitatik gustuko du Begoña Diez Alcarazek joskintza eta diseinua mundua, eta horren inguruan ibili da urte luzez. Umeentzako arropak diseinatzeari ekin zion hasieran, baina, merkatuan «konpetentzia handia» zegoela eta, surf-tauletarako zorro pertsonalizatuak egiten hasi zen, arrakasta handiz. Ondoren, eskuz egindako bestelako osagarriak lantzeraz murgildu zen, 2017an. Orduetik, dioenez, arrakasta izan du, Gipuzkoan batez ere; bertako hainbat dendatan saltzen ditu bere produktuak, poltsak, diru-zorroak eta motxilak, baina diru-irabaziak horren txikiak direnez, online-denda bat jartzea erabaki du getxoztarrak. Pandemiaren erdi-erdian egin zuen hautua, eta abenduaren bigarren hamabostaldian jarriko du martxan bere webgunea; bitartean, Instagram bidez jasotzen ditu eskaerak. Aitortzen duenez, gaur egun berak egiten dituen modukoen askotariko produktuak topa daitezke merkatuan; hala ere, azpimarratu du berarenak eskuz egindakoak direla, artisautzazkoak. Gainera, nabarmendu du erabiltzen dituen larruak zuhaitzen azalakaz tindatuta eta belztuta daudela: «Den-dena naturala da». Erabilitako oihalak ere birziklatutakoak izan ohi dira, askotan daborduko katalogotik kanpo daudenak. Hori dela eta, bere produktuek «nolabaiteko eskusibotasuna» dute, mota bereko oso gutxi egin ditzakeelako. Horrez gainera, produktuak pertsonaliza ditzakeela azpimarratu du. ◀





MARTA HERRANZ | GORLIZ
Pleamarta, lepokoak eta eskumuturrekoak

«Itsasoagaz lotura estua dugu etxeko denok, hortik dator Pleamarta izena»

Erroak lehenagokoak badira ere, Pleamarta ekimenak aurton bertan hartu ditu orain dituen izena, tamaina eta izaera; COVID-19a dela eta udaberrian ezarritako konfinamenduan, hain zuzen ere. Epizentroan Marta Herranz dago, eta hark laburtu digu historia: «Etxetik irten ezinik geundela, hasieran munduko film eta telesail guztiak ikusi genituen, baina bi ume ditut eta ez nuen nahi egun osoa pantailaren aurrean ematea». Aspaldiko zaletasun batean topatu zuen Herranzek alternatiba: «Betidanik gustatu zait eskumuturrak eta lepokoak egitea; handik eta hemendik bolatxoak atera, haiekin lepokoak egiten hasi eta berehala umeak batu zitzaizkidan».

Bikotekidea ere laguntzen hasi zen, eta lauren artean idunekoa eta eskumuturrekoak barra-barra egin zituzten derrigorrezko etxealdi hartan. «Gustura nengibilen, kontua serioago hartzen hasi nintzen, eta egindakoa erakusteko orri bat sortu nuen Instagramen», dio Marta Herranzek. Pleamarta izenez bataiatu zuen ekimena, «familia osoak lotura estua baitu itsasoagaz; oso hondartza-zaleak gara, surfa egiten dugu... eta gure bidaietan hondartzetako maskorrak hartu izan ditut beti, etxera eroateko». Bolatxoak ez ezik, laster maskor haiek erabiltzen hasi ziren lepokoak egiteko; eta dena lotzeko, zer bestela, arrantza egiteko haria.


Instagrami esker bere lana asko zabaldu zela azaldu digu Herranzek, uda ailegatu zenean batik bat. Eta honenbestez, gorantz doa Pleamarta, bere izenak iradokitzen duen marea legez. ◀



ALEX ORBE | ALGORTA
Ilustratzaile petoa

«Umetan, komikiak egitea zen etxean denbora pasatzeko geneukan modua»

Barakaldon jaio zen Alex Orbe, baina sei urte dituenetik bizi da Algortan. Ez dakigu marrazteko grina Uribe Kostara bizitzera etorri aurretik edo ondoren piztu zitzaien, baina berak gogoan du oso txikitatik datorkiola zaletasuna, etxeko giroaren ondorioz. «Aita margolari amateurra zen», dio Orbek, «gustuko zituen komikiak, eta ekarri egiten zizkigun anaiari eta bioi; Asterixenak, Bruguerearenak... Nire anaia ni baino hamar urte inguru zaharragoa da, laster hasi zen komikiak marrazten, eta nik ere heldu nion zaletasun horri; hura zen etxean denbora pasatzeko geneukan modua». Etxean ikusten zuena eginez hasi zen marrazten Alex Orbe, azken batean. Eta ez zen baldarra, bistan dena. «Anaiak ikastaro bat egin zuen Andoainen, marrazki bizidunak egiteko; inguruko hainbat enpresarekin kolaboratzen hasi zen, eta handik urte batzuetara, hogeitauetean, niri ere deitu zidaten lanerako, Carlos Varela sortu zuen enpresa batean. Egia esan, uste dut Bizkaiko marrazkilari guztioi deitu zigutela». Horiek izan ziren lehen pausoak profesional modura. Handik zazpi urtera, ordea (duela hogeitauetean), bestelako bideak urratzea erabaki zuen Alex Orbek. «Nire kabuz hasi nintzen, eta zortea izan nuen, oraindik horretan nabil eta». Lan asko egiten du argitaletxeen eta publizitatearen arloan, umeentzako marrazkiak, komikiak eta halakoak marraztuz. Lantzean behin, ondo dakizuenek, HIRUKArentzat ilustrazioak egiten ditu. Zenbaki honetan bertan, haren eskutik sortu dira azala eta 4-5 orrialdeetako ilustrazioa. ◀






AKETZA SANCHEZ | GORLIZ
Salty Wood, zuragaz egindako lanak

«Uribe Kostako hondartzetan ibiltzen naiz enbor egokien bila»

Aketza Sanchez berangoztarraren bizitza itsasoagaz oso lotuta egon da beti. Aspaldi, 90eko hamarkadan, sorosle ibiltzen zen Gorrondatxe-Azkorriko hondartzan, eta orduan hasi zen mareak ekarritako enborrak batzen. Gero, hondartzan bertan edo etxean, forma ematen zien, «edo forma jakina zutenak hartu eta apur bat lantzen nituen, lixatuz eta txukunduz». Denboraz, surflari profesional eta surf-irakasle bihurtu zen, baina istripu larri batek goi-mailako kirola uztera behartu zuen 2012an; GoazenUp! elkarte sortu zuen orduan, batez ere hondartzak garbitzeko helburuagaz. «Hondartzan batutako gauzen artean enborrak eta oholak zeuden, eta 90eko hamarkadako hobya etorri zitzaidan gogora». Baserrian txoko bat antolatu zuen zura birziklatzeko, eta berriro ekin zion gaur egun Salty Wood izena duen proiektuari, Oihana Barrilarogaz batera. Beste askori jazo zaien legez, aurtengo udaberriko konfinamenduak hauspoa eta denbora eman zizkion Aketza Sanchezi, eta denetik egiten hasi zen batutako enborrakaz: arrainak, lanparak, koadroak... «Jasotako zur-puskei ez diet forma asko aldatzen, jatorrian duten forman oinarritzen naiz, eta batez ere lixatu eta leundu egiten ditut, berniz eta bestelako produktu ez-toxikoak erabiliz betiere». Bilketa da gakoa, honenbestez: «Uribe Kostako hondartzetan ibiltzen naiz enbor egokien bila, zerbait gogora ekartzen didaten formak bilatzen ditut». Egindako lanak salduz lortutako dirua GoazenUp! elkarte finantzatzeko baliatzen du, «ez dut negoziarik egin gura». ◀



BIKOOL | BILBO
Kamisetak, poltsak eta maskarak

«‘Slow fashion’ egiten dugu guk, hau da, moda jasangarria»

Hiru lagunek osatzen dute Bikool: Maria Larunbek, Bilbon bizi den donostiarra, eta Berangon bizi diren Iñaki Mas eta Jon Ander Amezagak. Elkar ezagutu zutenean euskal kulturagaz lotutako moda-diseinuak egiteko ideia piztu zitzairen, eta hura izan zen Bikool markaren hasia. Orain urtebete inguru egin zituzten lehenengo pausoak; dena prest zuten maiatzean Bikool aurkezteko, baina COVIDak asmoa zapuztu zien. Azkenik, urrian atera zuten marka merkatura. «Uda aurretik aurkeztu behar genuenez», azaldu dute, «mahuka motzeko kamisetak eta oihalezko poltsak genituen prest, baina tira, udazkenean eginda ere moldatu gara». Denda fisikorik ez dute, online saltzen dute.

Bizkaia eta Bilbogaz zerikusia duen zerbait sortu gura zuten, eta hortik dator Bikool izenaren lehenengo silaba. «Momentuz, gure produktuetan Bizkaiko irudi tipikoak sartu ditugu: Omako basoa, Gaztelugatxe, Bilboko urdin kolorea...». Eta logotipoan, Bikool izenaren lehenengo «o» letrak Bilboko baldosen itxura du. «Bestalde», gaineratu dute, «bai esanguragatik bai soinuagatik gustuko ditugun euskarazko zenbait hitz erabili ditugu: *zirimiri, sorgina, musutruk, ortzimuga, ilargi...*». Oraingoz kamisetak, poltsak eta maskarak egiten dituzte Bilboko tailerrean, eta laster izerditzeko jertseak diseinatzen hastekoak dira, «Euskal Herrian asko erabiltzen baitira». *Slow fashion* egiten dute, «*fast food*aren aurkakoa, nolabait, baina modara ekarria: ez kontsumitu behar duzuna baino gehiago, hurbileko produktuak erosi... Moda jasangarria, azken batean». ◀



Aukera eder eta ugariak, etxeko a

Oso GIZONENTZAKO MODA



Algortako etorbidea, 59. ALGORTA
Tel.: 653 721 056
osogorta@gmail.com

1 Lumazko berokia

JOTT

160 €

2 Botak
BLUNDSTONE

185 €



Her EMAKUMEEN MODA ETA IRUDI-AHOLKULARITZA



Algortako etorbidea, 53. ALGORTA
Tel.: 944 040 680
heralgorta@gmail.com

3 Botak
**BLUNDSTONE «150 Anniver-
sary»**

195 €

4 Berokia
VILA

109,99 €



Maitia ARROPA KUSTOMIZATUA



Erdiko kalea, 46. ARRASATE (GIPUZKOA)
Tel.: 690 322 393
maitiaeuskalherria@gmail.com
www.maitia.net

5 Tellamendi bisera

22 €

6 Pozoia poltsa

12 €

7 Hiruatx jertsea

59 €



tari ondoan

Orrialde hauetan Uribe Kostako saltokietan eros daitezkeen hainbat produktu topatuko dituzu, zure etxetik oso hurbil. Opariak bertan eskatzeko aukera izango dute Mari Domingik eta Olentzerok.

Iñaki BITXITEGIA



Villamonte plaza, 3. ALGORTA
Tel.: 944 302 345
informacion@joyeriainaki.es
www.joyeriainaki.es

8 Belarritakoak
Dendan galdetu

9 Erlojua
FREDERIQUE CONSTANT
Dendan galdetu

10 Zilarrezko esmeraldadun eraztuna
Dendan galdetu



Aingara BORDATUAK



Aurrezki Kutxa kalea, 18. Itzubaltzeta/Romo
Tel.: 944 038 953
info@bordadosaingara.com
www.bordadosaingara.com

11 Eguzkiloire-altzairua
24 €

12 Kuxinak
16,90 €

13 Motxilak
49,95 €



Aldai ARTISAU-TAPIZTEGIA



Basagoiti etorbidea, 32. ALGORTA
Tel.: 944 609 031

Artisau-tapiztegia: dekorazioa, erakusketa eta tailerrak.

Oihalak eta margoturiko horma-paperak, metroka salgai.



Hirukira olgetan

© Garbine Ubeda

SOLUZIOAK:




Ispiluan

Aurki itzazu irudi bien artean dauden aldeak. Zortzi dira.



Betidanik
haur eta gazte
literaturan
murgilduta!

ibaizabal
www.ibaizabal.com



Dominoan

Bete itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.



EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK

erein

Asier Gorostidi eta Igor Sarralde

Hobekien kontserbatzen den Kantauriko basoetako batera sartzeaz zaude, gure lurraldeko tontorrik garbienera igotzeaz, gure habitat guztietako animalia bitxiak ezagutzeaz, baita ia ikusezinak direnak ere. Iberiar penintsularen iparraldeko hainbat ekosistema eta bertan bizi diren ia espezie guztiak ezagutu ahal izango dituzu orrialde hauetan. Taldeka eta familien arabera antolatuta, gure lurraldeko 50 espezie enblematikoenen ezaugarri eta berezitasun guztiak ezagutuko dituzu. Presta zaitetz kolore orotako animalia basatien mundua bisitatzeko; orrialde guztietan izango duzu aukera deskubritzeko nor ezkututzen den.

«Gertutasunak bereizten gaitu»

San Nikolas, Getxoko ikastola, herritik herriarentzat egina

Parte-hartzailea eta irekia, denek egiten dute San Nikolas Ikastola. Beraien seme-alaben heziketa-prozesuan parte hartzeko askotariko aukerak dituzte gurasoek.

Klandestinitatean, bederatzi ikaslegaz jaio zen San Nikolas Ikastola 1963an. Bizkaiko bigarrena izan zen, aitzindarietakoa beraz, eta bere muinean daramatza euskalduntasuna eta kooperatiba-izaera. Gaur, Getxoko ikastolarik handiena da eta, langile-kopuruari dagokionez, bigarren erakundea da herrian. San Nikolas Ikastolak Herri Onura Kooperatiba izendapena jaso du, eskualdean egiten duen lanagatik. Ikastolaren filosofia eta izaerari buruz gehiago jakiteko, San Nikolaseko Gaizka Arrizabalaga zuzendari-gerenteagaz eta Josu Elortegi zuzendariagaz batu gara.

Zein da San Nikolas Ikastolaren filosofia? Gaizka Arrizabalaga: Ikastola-izaera duen proiektua da, etengabe gaurkotzen den hezkuntza-sistema pedagogikoarekin eta eguneroko kudeaketan langileak, gurasoak eta ikasleak integratzen dituen. Irakasleak etengabe trebatzea bilatzen dugu, hori kalitatearekiko eta garapenarekiko dugun konpromisoaren isla da. Euskararekiko konpromiso irmoa ere badugu, honen egonkortasuna eta bideragarritasuna bermatzeko.

Zer zerbitzu ematen ditu ikastolak? G.A.: Urte batetik abiatuta, bigarren hezkuntzara arte, 16 urtera arte, herrigunean kokatutako D eredu eskaintzen duen bakarrak gara. Gurasoen kontziliaziorako eskaintza dugu, 07:30etik 18:00ak arte. Eta bestetik, eskolaz kanpoko zerbitzu-eskaintza zabala dugu, bai kirol-arloan, baita kulturarenean ere. Hori guztia, gainera, jantoki-zerbitzuarekin uztartzen dugu, eta Fadurako azpiegiturak osatzen du gure eskaintza. Gure garraio-azpiegitura Uribe Kostara osora zabaltzen da, proiektuan parte hartzeko aukera edo nork eduki dezan.

Zertan bereizten da San Nikolas Ikastola? G.A.: Gertutasunak bereizten gaitu. Gure langileek ikasleekin duten gertutasunak, maitasunak eta inplikazio emozionalak gure ikasleen garapen akademiko eta soziala bermatzen dute, beraien arteko harreman-sarea ahalbidetuz. Sustraiak herrian ditugun arren, munduari begira gaude, eta 16 urtera arte hezkuntza-eredu euskaldun kooperatiboa dugun bakarrak gara. Elkartasuna ere bada gure xedea, eta herrian hainbat proiektu babesten ditugu, HIRUKA besteak beste. Maila nazionalean ere beharra duten ekimenak babesten ditugu, Iparraldeko Eskolak adibidez. Nazioartean ere kanpainak bultzatzen ditugu, hala nola Sahararako elikagaiak lortuz.

Zelan ari zarete ezartzen teknologia berriak? Josu Elortegi: Aspaldi murgildu ginen prozesu horretan. 2006an, Ikastolen Elkartaren eskutik ekin genion bideari, eta ordutik apustu



Abenduaren 17an eta urtarrilaren 14an ate irekiak egingo dituzte. Izen-ematea sanikolas.eus/zatoz webgunean.



Arene Azpi 15
48991 Algorta (Getxo)
944 30 54 78
ikastola@sanikolas.eus
www.sanikolas.eus

«Ikastolatik mundura eta euskaratik hizkuntza guztietara; komunikazioa landuz mundua ezagutzen dute gure ikasleek»

egin dugu gure hezkuntza-komunitateari gaitasun digitalaren garapenerako proiektu sendoa eskainiz. Horren erakusgarri da 2017-2018 ikasturtean gauzatutako IKT plana. Horren bitartez, hurrengo urteetarako helburu nagusiak zehaztu dira, ikasle, irakasle zein gurasoentzako gaitasun digitalaren mapa irudikatuz. IKT taldeari esker, ikastola heldutasun teknologikoaren goiko mailan dagoela esan dezakegu.

Zein baliabide erabiltzen duzue jazarpenari aurre egiteko?

J.E.: Urte askotako kezka izan da arazo hori modu egokiro bideratzeko tresna edo sistema bilatzea, nahiz eta arazo berezirik ez izan gurean. Azkenean, Finlandiako Turku unibertsitatearekin eta Ikastolen Elkartarekin elkarlanean KIVA proiektua ezartzeko apustua egin genuen. Asmatu genuela esan daiteke, denen parte-hartze aktiboarekin kasuak murriztu direlako.

Zer da Eleanitz programa? J.E.: Ikastolatik mundura eta euskaratik hizkuntza guztietara; European saritua izan den Ikastolen Elkartek sortutako metodologia da. Ahozketasuna eta parte-hartze aktiboa eta dinamikoa dira ardatzak. Komunikazio-gaitasunak landuz mundua ezagutzen dute gure ikasleek. Hainbat egitasmo baliatuz, Europako beste herri batzuetako ikasleekin trukeak sustatzen ditugu. ◀



Idatziozu gutuna Olentzerori!

Kaixo, Olentzero eta Mari Domingi





Olentzero eta
Mari Domingiren borda
Basoko bidea. 24 Euskal Herria

2020ari agur

hìruka
Gehigarri berezia

166. zenbakia
2020ko abendua



Errimaz errima, urteari begira

Badoa 2020a, COVID-19az gainera, beste gai ugari utzita. Horietako batzuk gogora ekarriko ditugu datozen orrietan, ALBEko bertsolarien laguntzagaz.

Kurkudi mendiko kiroldegiaren proiektua, hautsak harrotzen



Apurka-apurka aurrera doa Leioan, Kurkudi muinoan, Domingotarrena izandako komentu abandonatua eta haren ingurua urbanizatzeko egitasmoa. Bertan kiroldegi pribatua egitea da helburua, hain zuzen ere. Gaiaren gaineko eztabaida bizirik dago beti, eta tarteka areagotu egiten da, aurtengo udagoienera esate baterako, erakundeek proiektua gauzatzeko izapidetzeak egin ahala. Auziaren berri luze-zabal eman dugu HIRUKAn.

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►



*Sustatzaile pribatu
baten ekimena,
agintariek eman
diote baimena.
Azkar bezain lausoki
ebazten dutena,
nork ez sinistu zerbait
ustel dagoena?*

BEÑAT VIDAL GURRUTXAGA
Getxo

*Nik galdua dut nuen
esperantza printza,
dinosaurio handia
da zementugintza.
Sinadura bilketa
ta beste ekintza...
Kexuka gabiltzanak
alferrik gabiltza.*

*Espainian zementuz
horrenbeste bazter
bete zituzten, ustel-
-jendeari esker;
alderdi bat jausi zen
epaileen maizter.
Hemen ere beste bat
jausiko da laster.*

Inauteriak, edo aurpegia gure borondatez estaltzen genuenekoa



Datorren urteko aratusteez segurtasunez esan dezakegun gauza bakarretakoa data da. Eta ez dutela 2020koagaz zerikusirik izango. Orain oroitzapen lausoa dirudi, baina aurtengoak normal ospatu genituen, koronabirusa (COVID berba entzun barik geneukan) besteen arazoa zelakoan. Txinatarrena. Italiarrena, akaso. Ohi legez, sasoi horretan eskualdean egindako ospakizunei arreta eskaini genien; besteak beste, argazkian ageri den Astrabuduko *Dantzxori* ikuskizunari.

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: TRABUDU DANTZA TALDEA ▶



*Inauteri, Karnabal
edo Aratuste...
herriz herri desberdin
ospatzen dituzte.
Bermatuta daukazu
hamaika ezuste;
txintxoena deabru
bihurtu litezke!*

JOSU ARROYO IZKOA
Algorta

*Joaldunen doinuaz
lurra da esnatzen;
Miel Otxinen beldur
omen dira Lantzen.
Tolosa aldean ere
ez dira aspertzen,
mozorrotuta lotsa
ez baita existitzen!*

*Astrabudun, Mundakan,
Santutxun, Algortan...
aukerak asko dira
herri maite honetan.
Ospatuko al ditugu
-ez nabil txantxetan-
musuko sexyekin
ahoaren bueltan!*

Egunero da martxoaren 8a



Aurtengo martxoaren 8an grebarik egon ez arren, emakumeek ez diote kalera irteteari utzi. Beste behin ere, gogoratu dute borroka ez dela egun bakarrekoa, egunero egin behar dugula lan parekotasunaren eta emakumeen eskubideen alde. Hala ere, adi egon behar dugula gogoratu dute beste behin ere, jabetze interesatuek eta promesa hutsalek borroka bereganatu eta desbideratu ez dezaten.

TESTUA: ANDER ZARRAGA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶



*Argazki eta kartel
biralizatu
al da militatzeko
modu hautatua?
Indibidualizatu
ote da kontua?
M8 al dago
marka bihurtua?*

NAROA TORRALBA RODRIGUEZ
Larrabasterra

*Borroka eraman behar da
egun denetara
euskara erdigunera,
bestela, ez gara.
Baztertu, izan dadin
mila ahotsetara;
pertsonala den oro
politikoa da.*

*Inplikatu behar dira
instituzioak
aldenduz kolektiboen
estigrazioak.
Zuriketa moreen
ordez, plan sendoak:
politika publiko
efikazagoak.*

Gure bizitzak aldatu dituen pandemia



Otsail-martxoan egin zuen agerraldia lehenengoz koronabirusak gurean. Ordutik, milaka infektatu eta ehunaka hildako utzi ditu COVID-19 izeneko gaitzak inguruotan. Unerik gogorrenetan, konfinamendu betean, Gobernuak ezarritako neurriez gainera, herriz herriko eta auzoz auzoko solidaritate keinu eta ekimenek zeresan handia izan dute epidemiari aurre egiteko. Hilabete luzeetako etxealdiak bizitakoen oroipenak bizirik diraute oraindino ere.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶



*Birusa zuenean
Taiwanek, Indiak,
Tailandiak, Hong Kongek,
Wuhango hiriak
Europar trufa eta
Europar ziriak.
Azkar ahaztu zaizkigu
Orduko irriak!*

KERMAN DIAZ FRANCO
Urruña

*Gero konfinamendu,
Min eta desgrazi.
Ulertua genuen,
Sinistua kasi,
Aldatu behar zela
Ta alda arazi
Baina aspertzen ere
Ez dugu ikasi.*

*Ondotik ea garai
Hobeak datozen;
Musuko gabe bizi
Ta kantatzen ozen,
Gertatuak ikasi
Ta kontuan hartzen,
Gure buruarengan
Soilik ez pentsatzen!*

Normaltasun berrira ohituta



Duela urtebete, zorakeriatzat hartuko genuke norbaitek esango balu maskara nahitaezko osagarri bilakatuko zela, udalerritik ezingo ginela mugitu edo taberna guztiak itxiko zituztela. Normaltasun berri hau arrotza eta bitxia da aldi berean. Orain, arraro edo anormal egiten zaigu pandemiaren aurreko irudietan jendea batuta ikustea, inolako segurtasun-distantzia edo musukorik gabe.

TESTUA: ANDER ZARRAGA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶



*Koloredun maskara
bihurtu da moda,
ahoa estalita
goaz bulegora.
Normaltasun Berria:
da eufemismo, ba!
Bitxikeri Zaharra
egokiago da.*

DANIEL DE MIGUEL AVECILLA
Getxo

*Baina kontu berriak
hobeak litezke
ibiliko bagina
maitaleen eske,
lana soilik jateko
behar dugun beste,
putzuetan saltoka
ibili gintezke.*

*Normaltasun berria
hain normala bada,
kapitalaren jabe
bihurtuko gara,
txanpon unibertsala:
musua, hartara,
kenduko dugu behingoz,
betiko maskara.*

Merkatarien egoera konfinamenduaren ostean



Koronabirusak goitik behera eraldatu du hilabeteotan gure gizartea, eta oraindino ere zaila da jakitea zelakoa izango den datorkigun etorkizuna. Bitartean, denon ahotan dagoen «normaltasun berrietara» egokitzen ibili gara pandemia-aro honetan, unean uneko osasun-neurrien arabera. Hala, martxa ezberdinetan bada ere, eskualdeko komertzioak zailtasunak gainditzen saiatu dira, bidean askotariko oztopoak aurkitu arren.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ►



*Krisi guztiak doaz
Azken xederaino:
Handiak handitzera
Lehen zirena baino,
Ta txikiak txikituz
A ze enbata ño!
Asko eroan dituzte
Desagertzeraino.*

AITOR ESTEBAN ETXEBARRIA
Itzubaltzeta

*Patuaz askok dio
Zeruari galde,
Kapitalak ez baitu
Egingo euren alde.
Ba gera ez gaitezen
Komertziorik gabe,
Hauen txerto guztiak
Gure esku daude.*

*Denda txikiak dira
Gako handi bat ezen,
Salduko baitigute
Otzara bete sen.
Gehiegizko hazkundera
Pandemia ote zen?
Dagokigun neurrira
Itzuli gaitezen!*

Uda gazi-gozoa



Negu gorri batek bezala, pandemiak etxean mantendu gintuen, ekaitza noiz amaituko zain. Gure itxaropen guztiak udaberrian genituen jarrita, natura bezala berpiztu eta konfinamenduaren oinazea astinduko genuela pentsatzen genuen. Baina ez zen halakorik gertatu, eta hainbeste behar genituen jaiak bata bestearen atzetik bertan behera uzten zituztela ikustean, txosna eta kontzerturik ez zela egongo konturatu ginenean, uda gazi-gozoa izango zela jakin genuen.

TESTUA: ANDER ZARRAGA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶



*Ikasketak zein lana
utzirik atzean,
lagun denak elkartu
oporak heltzean;
ta aurten egon behar
norbere etxean...
Ze pozik geunden txosnan
barraren ertzean!*

INAZIO VIDAL GURRUTXAGA
Leioa

*Txosnak ta kontzertuak
gazteon arkupe
izanik egon gara
denok urtez urte.
Jaietara lehenbailehen
itzuli nahi nuke:
Ia gauza onenak
kendu dizkigute!*

*Bi mila eta hogeia
ia amaitu da,
eta laster helduko
da hurrengo uda.
Hurbiltzen garenean
txosna ingurura,
juergako lehen erronda
neronen kontura!*

Porlanaren aurrean erresistentzia



Porlana, etenik gabe eraikitzea eta urbanizazio neurrigabea hazkunde ekonomikoaren gauzatze bilakatu diren mundu ero honetan, badira hausnarketarako momentu bat aurkitzen dutenak, eta gure lurragaz zer egiten ari garen ikusarazten digutenak. Eta gero eta gehiago dira begiak irekitzen dituztenak, eta bide zoro horretatik jarraituz gero, irabazteko baino galtzeko gehiago dugula konturatzen direnak.

TESTUA: ANDER ZARRAGA ARGAZKIA: HODEI TORRES DOINUA: HAIZEA DATOR IFARRALDETIK ►



*Ume ginela gure jolasen
sorgune zen Asto-landa:
ortu arteko kilker ehiztari,
gezi-belarren eztanda!
Txutxirengana iturri bila,
gero Fadurara dzanga!
San Juan surako egur bilketa,
txokolatea edanda,
baina heldu zen krisi burbuila,
sortu zuen lapur banda;
Asto-landaren suntsitzailea
astoagoa izan da!*

FREDI PAIA RUIZ
Algorta

*Nik uste nuen krisiarekin
ikasiko genuela
adreiluaren ekonomia
bideraezina zela.
Europak barre egiten digu,
ezin zen izan bestela;
ondo dakite gure armarriko
mezua iraungi dela.
Orain kaltea eginez gero,
boto kopuru itzela!
Zaharra kendu eta «Herria
salgai» jarri dezatela.*

Bizitza erdigunean jartzeko herri-sareak



Auzolanean, elkar laguntzeko sareak martxan egon dira konfinamenduak iraun duen bitartean Uribe Kostako hainbat udalerritan, «herritarren beharrezaneiei erantzuna emateko». Krisia, baina, ez da amaitu; hori dela eta, gaur egun existitzen ez diren edo erakundeak heltzen ez diren hainbat eremutan alternatibak sortzeko egitasmo berriak jarri dituzte martxan, hala nola Gorlizko, Lemoizko eta Plentziako Ari Du plataforma.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ►



*Birusak ekarri dau
langabe bilduma,
zahar ta umeentzat
erantzunkizuna.
Orain behar doguna
da elkartasuna,
zaintza taldeak dira
horren erantzuna*

PERU DE PEDRO LARREA
Gorliz

*Langabe, inmigratzaile
familia humil;
nagusi zein umeak
etxeetan zurbil.
Distantzia soziala
gu urruntzen dabil,
baina zaintza taldeak
senti leikez hurbil*

*Nabaria izan da
gizarte indarra,
antolakuntzak lortuz
erantzun azkarra.
Pandemiaren ostean
ez emon bizkarra,
orain ta beti dago
lagundu beharra.*

Okupazioa, arazo soziala ala interes politikoa?



Hedabideek okupazioaren inguruko alarma soziala piztea lortu dute udaldian hauspotutako bonbardaketa mediatiko baten ondoren. Hala ere, zergatik sortu da horrenbesteko alarmismoa? Arrazoizkoa da? Datuek diote okupazioek ez dutela nabarmen gora egin aurtan, baina beste krisi ekonomiko baten atarian gaudela. Bilboko Okupazio Bulegoak azaldu du zabaldutako mezuek helburu argia dutela: beldurra sortu ugazaba txikien artean euren jabetzak babestu gura izateko.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶



*Txorimalotik edo
Itzubaltzetatik
oihu ozenak datoz
izkin denetatik.
«Herri bat, gaztetxe bat»
eztarrietatik,
herri hau hil ez dadin
lege batengatik.*

MAIDER BARAÑANO URIBARRI
Algorta

*Baina legea denez
haintzako tratu,
kaleratzea dute
guregan iltzatu.
Guk eutsiko diogu,
beraz ez kezkatu,
berriro ametsetan
ez dadin geratu.*

*Non ote dago mundu
honen irteera?
Ez al da proiektu bat,
bidean aukera?
Ondo dakigu baietz
ta beraz batera
goazen itxitakoak
berriz zabaltzera!*

Hezkuntza COVID-19aren aroan



SARS-CoV-2 izeneko birus horrek eragindako ziurgabetasunen artean, ez zen txikienetakoa izan hezkuntza-komunitateari oraingo ikasturtearen atarian suertatu zitzaiona. Udaberriko etxealdian eguneroko jardunari zelan edo hala eustea lortu ondoren, «normaltasun berri» izena eman zaion honetan ikastetxeetara bueltatzeko moduak asmatu behar izan zituzten. Diotenez, erakundeen aldetik espero zitekeena baino laguntza txikiagoa jasota.

TESTUA: UNAI BREA ARGAKZIA: HODEI TORRES



*Pandemiak dena_ipurdi
bistan utzi baitu,
kurtsoa ez genuen
egoki amaitu.
Bera menperatzeko
ez gintuzten gaitu,
eta teknologiak
menderatu gaitu.*

JONE URIA ALBIZURI
Getxo/Algorta

*Irailerako ez zen
joango pandemia,
baina udan han zeuden
hondartzak, mendia...
Nola uztartu biak
galdera zen, ia,
aurreikuspen lanen ta
oporren premia?*

*Agintariek berriz
ze modu xumean,
neurriak ta baldintzak
behar ziren unean,
ardura zentroen esku
ehuneko ehunean.
Ez dira hain malguak
curriculumean.*

Oztopoak oztopo, Euskaraldiaren birusa zabaldu da



Goitik behera baldintzatu du COVID-19ak Euskaraldiaren bigarren edizioa. Askotariko alternatibak baliatu behar izan dituzte herri-batzordeek hizkuntz ohiturak aldatzea helburu duen ariketa sozial hori egituratzeko, baita horren nondik norakoak gizarteratzeko ere. Emaitza esperokoa izan da; aurrekoa baino murriztagoa: 179.780 lagunek parte hartu dute, lehenbiziko edizioan baino 45.374 gutxiagok. % 77k hautatu dute ahobizi rola, eta % 23k eroan dute belarriprest txapa.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶



*Pandemiak kolpatu du
mundua zeharo
baina Euskaraldia
joan da oparo
ahobizi izan naiz
ta gustura nago
euskaraz egin baitut
lehen baino gehiago*

ARRATE ILLARO ETXEBARRIA
Getxo

*Ariketa itxuraz
sinplea behinepin:
lehen hitza euskaraz
ezezagunekin
ta ulertzen badute
eutsi, gogor ekin
hitz egiteko gero
ta gehiagorekin*

*Gaurtik aurrera ere
ez geratu lotan
aurreiritziak txarrak
baitira askotan.
Egin liteke gure
eskualde hontan
euskaraz uste baino
askoz gehiagotan!*

Unai Mendiburu • Jone Uria ALBEkideak

«Honek luze joz gero arriskua dugu presentzia galtzeko»

UNAI BREA ▶

Zelakoa izan da 2020a zuentzat? JONE URIA: Nik bereizi egingo nituzke ALBEkide modura (hau da, bertso-saioen antolatzaile modura) eta bertsolari modura bizi izandakoak. Antolatzen duzunean zeu zara arduraduna, eta COVIDak zailtasun asko ekarri ditu. Askok ez dute ardura hori hartu nahi izan, eta saio ugari bertan behera geratu dira. Bestalde, gogoratzen dut konfinamendua etorri zenean bertsolari batzuk elkartu eta esan genuela «saioak egin behar ditugu online». Orduan jende guztia zebilen kultur eskaintza egiten, eta gurean eztabaida sortu zen egin behar zen, ez zen egin behar... Tira, guk egin genuen.

Zeintzuk izan ziren batzuen eta besteen argudioak eztabaida hartan? J.U.: Alde batetik, kultura dohainik eskaintzeari edo ez eskaintzeari buruzko eztabaida zegoen. Kultur itzalaldia egon zen, eta batzuen beldurra zen ea nola bueltatuko ginen, ea dohainik eskaintzen ari ginena gero jendeak ez zuen ordaindu nahi izango. Ni egitearen aldekoa nintzen, eta uste dut momentu hartan idealena izango zela saio horiek antolatzailer baten ekimenez egin izana, soldatapean, baina ez zen horrelakorik eta... Guk hartu genuen geure saioak antolatzeko ekimena, eta eztabaida egon zen, era berean, ea horietan dirua eskatu behar ote genuen, ez sarrera modura, dohaintza modura baino. Azkenean ez genuen egin, baina uste dut eztabaida interesgarria izan zela.

Hori konfinamenduari dagokionez. Gero uda etorri zen, eta hura ez zen izan batere arrunta... UNAI MENDIBURU: Ez. Etxetik atera eta beste arazo batzuk izan ziren kultur ekitaldiak antolatzeko: ardura zibila, edukierak kontrolatzea... Guk hori jasan genuen. Getxon, hain zuzen, hasieran behintzat ez da egon kulturarako ardura handirik, beldurriago edo motelago ibili dira. J.U.: Getxoko Udalak erabaki zuen kalean ezer egiteko baimenik ez ematea udan, eta leku itxi eta pribatuetan ibili gara (publikoetan ere ezin zen eta). Dena dela, udal guztiek ez dute berdin jokatu: batzuek, beldurragatik, edo errazena zelako, bertan behera utzi dituzte saioak eta, beste batzuek, aldiz, aurrez izan gabeko jarrera ona izan dute bertsolaritzarako, nahiago zutelako bertso-saioa antolatu kontzertu bat baino. Eserita egon behar bada errazago irensten da bertso-saioa.

ALBE eskolari berari, zelan eragin dio honek guztiak? U.M.: Udan normal ibili ginen, eta orain ere berriro elkartzen gara aurrez aurre. Hala ere, orain indarrean dagoen dekretua kontuan hartuta Udaltzaingoari abisatu genion, ez baitzegoen argi bertsoak zer leku zeukan. Esan ziguten tarteari eutsita eta maskara jarrita ez zegoela arazorik. J.U.: Suertea eduki dugu, azkeneko neurri zorrotzen testuinguruan trebakuntza modura



Konfinamenduan hartu beharreko bidez eztabaida interesgarria izan zutela diote ALBEkideek. ANDER ZARRAGA

Oztopoak

«COVIDak zailtasun asko ekarri ditu ekitaldiak antolatzeko orduan, eta horregatik geratu dira saio asko bertan behera»

Aurrera jarraitzea

«Lehen antolatzen genuen beste saio antolatzea da gure asmoa, eta formatuak moldatu behar badira, moldatzea»

onartu baita bertsolaritza. Horrek aukera eman du EAE osoan bertso-eskolek aurrera jarraitu ahal izateko.

Zer kalte egingo du zenbait txapelketa atzeratu izanak? J.U.: Kontuak luze joz gero arriskua dugu lehengo presentzia galtzeko, ez baitago argi lehen bezala hartuko gaituzten. Plazari dagokionez, berriz, Euskal Herriko Bertsozale Elkartek emandako datu bat da gutxi gorabehera % 50 jaitsi direla Lankuk antolatutako saioak, baina hor ez dira kontuan hartzen antolatzailer txikiak, bertso-afariak... Eta segur aski halakoak dira galdutako saio gehienak.

Zer plan du ALBEk? J.U.: Lehen antolatzen genuen beste saio antolatzea, eta formatuak moldatu behar badira, moldatzea. Ahal den neurrian lana eman nahi diegu bertsolari eta gai-jarzaileei, helburu bakarra ez baita inguruan bertsogintza sustatzea; gainera, bertsogintza elikatu nahi dugu. Alde profesionaletik, esan nahi dut. Baina hori nola egiten den... Eta segur aski, elkarte gehienei dirulaguntzak murriztuko dizkiete. ◀

BERTOKO GASTRONOMIA ZURE ETXEAN

Alferrekoa litzateke orain azaltzen hastea zer-zelako eragina izan duen, azken asteetan, pandemia dela eta ostalaritza itxi izanak. Egoeraren larriari zelan edo halan aurre egiteko, etxera eroateko janaria prestatzen jardun dute gure inguruko negozio askok, ondo jakina denez, eta laguntza eman guran, Uribe Kostako udal gehienek gidak argitaratu dituzte, mota horretako zerbitzuak eskaintzen dituzten taberna, jatetxe eta enparauen berri-emateko herritarrei. Hemen duzue gida horien bilduma, ostalaritza berriro zabaltzen izanagatik oraindino ere lagungarri izango zaizuelakoan.

ERANDIO

www.irekia.erandio.eus



SOPELA

www.sopelazabalik.eus



GETXO

www.getxo.eus



LEIOA

www.behargintzaleioa.net



BERANGO

www.berango.net



PLENTZIA

www.plentzia.eus



GORLIZ

www.visitgorliz.eus



Etxera eroateko hamaika pro

Eskarra taberna-itsaskitegia | Algorta

Tel: 688 776 003
Torrene Kalea, 1

Itsaski-errazio fresko-freskoak

ESKAITZA: Ostrak, nekorak egosiak, izkira egosiak eta zanburiñak plantxan.



Itsaskien erreferentzia-gune bilakatu da Getxon Algortako Eskarra taberna, errazio-formatuan dituzten kalitatezko produktuen eskaintza zabalari esker. Duela bi urte eta erdi ireki zuten, ikusi zutelako herrian ez zegoela horrelakorik. Beraien berezitasunen artean daude nekorak plantxan, Galiziako *zamburiñak* edo zapo eta otarrainxken broxetak. Baina, Eskarra tabernan maisuak dira denetariko itsaskiak prestatzen, egosita zein plantxan. Ez dago itsasoko produktuak ezkontzeko ardo zuria bezalakorik; Eskarran hori badakite, eta horregatik, ardo zurien eskaintza zabala dute: Verdejo, Galiziako Albariño, bertoko txakolina... Gabon ezberdin hauetan beraien berezitasunak etxean dastatzeko aukera eskaintzen jarraituko dute, bertan batuta edo etxera eroateko eskatuta. Horretarako, produktu egosiak gomendatu dizkigute, nekorak, magurioak eta txangurroak batik bat; plantxan egindako janariak, aldiz, bertan dastatzea askoz hobea dela diote.

@mariscosesarra



GetxoGason gasolioak banatzen eta saltzen ditugu, eta gure bezeroen premiei erantzuten diegu modu pertsonalizatuan, merkatuko produktu onenekin eta 24 urte baino gehiagoko esperientzia duen enpresa baten berezko zehaztasunarekin eta zerbitzu propioekin.

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 94 430 15 00

📍 Getxo eta Berango artean

posamen

Euskaldunok berezkoa ei dugu bapo jateko elkartzeko sena, zer esanik ez urteko akabuko egunotan. Aurten, baina, etxetik kanpo jatea zaila izango dugun arren, bertoko jatetxeek etxera eroateko eskaintza zabala dute Gabonetarako. #

Juan Mari harategia | Areeta

Tel: 944 644 125
Mesedeetako Ama, 31

Okela onaren tradizioa

ESKAITZA: Mota guztietako okelak.



Bazkari, afari eta oturuntzen garaiak dira Gabonak. Hala, normalean jaten ez diren jakiez gainezka egon ohi dira gure mahaiak egunotan, familia eta lagun artean horietaz gozatzeko. Urtez urteko hitzordu horiei aurre egiteko, premiazkoa izaten da lehengaiez hornitzea, eta horretarako aukera paregabea eskaintzen du Areetako Juan Mari harategiak. Urte osoan eskaintza zabala izaten dute, baina garaiotan produktu gehiago izaten dituzte aukeran. Hala, denetarik aurki daiteke bertan: foie-ak, ahuntza, txerrikumea, kapoia, indioilarra, pularda, eperra, fisaia, ahatea, Alaskako izokina, Frantziako kabiarrak eta askotariko okelak. Orriotara artxoa ekarri dugu, eta honela prestatzeko gomendatu digu Juan Mariko arduradun Itxaso Zelaia: lehenik eta behin ordubete eduki uretan, berakatzagaz, eta ondoren azpilean ipini eta labean sartu, 180 gradutan, hiru ordu laurden artxoaren saihesta gorantz begira eta beste hiru ordu laurden beherantz, uragaz eta Modenako ozipinagaz.

ERRESERBAK: Beharrezkoa ez den arren, gordetzeko eskatzea gomendatu dute.



BASERRIKO denda

LANTZARTE AUZOA, 13 BERANGO
BARRIO LANTZARTE, 13 BERANGO

699 81 12 89

SERVICIO A DOMICILIO
ETXERAKO ZERBITZUA

SERVICIO A COLECTIVIDADES, TXOKOS Y GRUPOS DE CONSUMO
KONTSUMO TALDE TXOKO ETA KOLEKTIBITATEI ZERBITZUA

Baserriko sasoiko produktuak
Productos de caserío de temporada

Produktu ekologikoak
Productos ecológicos

Goi-mailako produktuak
Productos selectos y gourmet

Valentziako zitrikoak
Cítricos valencianos

Sasoiko fruta ekologikoak
Frutas de temporada ecológicas

Opari egiteko otzaran-egokituak
Cestas de regalo personalizadas

Produktuak Km0
Productos Km0

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

BOSCH
Service

Car Service

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

Gure Etxea | Itzubaltzeta/RomoTel: **944 636 880**

Aurrezki Kutxa, 14

**Bertoko produktuetan
espezialistak****ESKAINTZA:** Bakailaoa, barraskiloak,
Otxandioko bildotsa, txerrikumea...

Aurkezpenik behar ez duen establezimendua dugu Itzubaltzeta/Romoko bihotzean lekututa dagoen Gure Etxea taberna. Sasoi-sasoiko sukaldaritza tradizionala egiten dute bertan, eta egindako lanagatik goraipatuko dute bertako ugazaba eta sukaldaria den Joseba Irusta; abenduaren 17an «Aixe Getxo!» saria emango dio Udalak eta, gainera, hilaren 28an EITBn agertuko da, Joseba Argiñanoren programan. Azaldu digunez, baina, ezohikoa izango da aurtengo eskaintza Gure Etxean. Izan ere, COVID-19ari aurre egiteko osasun-neurriak direla eta taberna itxita mantenduko dute. Dena dela, orain arte egin duten bezala, etxera eroateko janaria prestatzen segituko dute bertan. Aukera bi emango dituzte horretarako: alde batetik, puntu-puntu, jaso eta etxean segituan jan ahal izatekoa; eta, bestetik, gura izatekotan, etxean labeaz azken ukitua emateko errekiak. Egunero eskainiko dute zerbitzu hori, abenduaren 24, 25 eta 31n eta urtarilaren 1ean barne, eguerdian 15:00ak arte eta gauean 21:00ak arte.

ERRESERBAK: Gabon-egunetan etxera eroateko janaria gura dutenek aldeztu aurretik abisua ematea gomendatu du Irustak, «dena behar bezala prest edukitzeko».

@gureetxea.taberna

**Oparitu ibilaldia****www.ibilaldia.eus/online-denda****IBILALDIA 2021 | SOPELA | LEIOA****kamisetak, sudaderak, poltsak, estutxeak...
DENDA ZABALIK, SARTU ETA EROSI!****ANDER
DEVNÀ**
iKASOLA

Zurikaldai Neguri | Neguri

Tel: 944 911 487
Neguri hiribidea, 9

Tarta, turroi eta gozoetan errege-erreginak

ESKAINITZA: Espinaka- eta kakao-tartak eta etxean egindako askotariko turroiak.



Urtero legez, Gabonen atarian gaudela, askotariko turroiak prest dituzte Neguriko Zurikaldai gozo-dendan garaiotarako; Cádiz, gorringo eta txokolatzkoa, gorringo bikoitzekoa, sokonuskoa... Lerroon ondoan ikus dezakezuen argazkian horietako batzuk topa ditzakezue, baita tarta berezi bi ere. Ezkerrekoa, espinakaz egindakoa da; Bilboko berezia, betidanik egindakoa, «baina apurka-apurka desgertzen ari dena», dioskute dendakoek. Bestea Kakao izenekoa da; klasikoa, txokolatzkoa. Aurtan, pandemiak eragindako egoerara egokituta, Gabonetarako tartak txikiagoak izango direla iragarri dute Zurikaldaikoek, 4-6 pertsonarentzakoak, hain zuzen ere. Horrez gainera, azpimarratu dute euren produktuak etxez etxe banatzeko zerbitzua dutela, baita transferentzia edo Bizum bidez pagatzeko aukera eskaini ere. Era berean, gogoratu dute To Good To Go aplikazioan parte hartzen dutela, eta egunez egun soberan gelditutako produktuak saltzen dituztela horren bitartez, jatorrizko prezioaren herenean: «Ideia da ezer ez botatzea zaborretara».

ERRESERBAK: Gabon-egunetarako eskaerak egiteko azkenengo eguna abenduaren 21a izango da; Gabon Zaharrerako, aldiz, abenduaren 28an. Errege Eguneko opilak urtarilaren 5etik aurrera eros daitezke; urtarilaren 6an dendan bakarrik.



4BIDE PINTURAK
mugarik gabeko koloreak

- Pintura eta berniz lanak
- Paper margotuak
- Zoruak

Loroño, 2 SOPELA · 94 676 29 92 · 4bidepinturak@gmail.com

BOGA

EUSKAL GARAGARDOA
BAS QUE BEER

Egiozu opari eder-ede



peluquería
ileapaindegia

No bedadeak!

Gorputz eta aurpegi-tratamenduak
Depilazioak: hotza, beroa eta laser

946 774 147 • Erribera 23 • PLENTZIA

Oinutsik
Podologia kontsulta

Nahia Andrés Bilbao (Kol. Zb. 236)



Zubigane 4, SOPELA • 94 404 74 20
podologiaoinutsik@gmail.com

Besteentzat beste edo gehiago, zuretzat ere bai. Hau, hori edo hura opari egitea, luze edo labur zer gurako du(t)en edo beharko du(t)en pentsatzeaz gainera... Eta «du(t)en» baino «dudan» galdetuz gero? Aukeran...

HIRUKA ▶

Askok euren buruak apaintzeko aprobetxatzen dituzte egun hauek: ilea orraztu, moldatu, garbitu, ebaki, atondu, tindatu... Denak balio du Gabon-egun hauetako afarietan edo bazkarietan lirain agertzeko. Batzuek sasoi honetan baino ez dute aukera aita-amakaz, neba-arrebakaz, seme-alabakaz, ilobakaz, lagunakaz... egoteko. Txukun agertzea izan ohi da egokiena; «txukun» norberaren araberakoa izanda beti ere... Baina besteek zutaz zer pentsatzen duten alde batera utzita, erabat zilegi da gorputza eta arima alaitu ahal dizkizuten opariak zeure buruari egitea: zuk zeuk zeure burua osasuntsu, ondo, eder ikustea da garrantzitsuena. Ahaztu barik, jakina, egokitu zaizkigun garai arrarootan are garrantzi handiagoa hartu duela besteen osasuna zaintzeak.

OHITURA OSASUNGARRIAK. Egun hauetako otorduakaz lotuta, ohiko hutsegitea da bazkari edo afarira heltzea ordu askoko barauagaz. Bada, gehiegikeria saihestearen orde, erraztu egiten du. Horregatik, oparoa izan daitekeen otorduren aurretik, onena da egoki gosaltzea eta, are gehiago, mokadu arina hartzea otordua baino lehen (ahal dela frutagaz) gosea eta antsietatea murrizteko. Izan ere, jaiak gozatu eta ospatzeaz gainera, mahaikideakaz eta otordu ederrakaz ondo pasatu eta atsegin har dezakegu. Eta, zer esanik ez, alkohola edango baduzu, neurrian hartu, gehiegikeria barik, are gutxiago autoa gidatzea egokituko bazaizu ondoren. Ez ahaztu biharamunean ere argituko duela egunak.



dermitek
KLINIKA • DERMATOKONTSULTA

BARIZERIK?
Bilatu konponbidea

2.300dik gora kasu
arrakastatsu zain barneko
laserraren bidez.
Bermatuta

www.dermitek.com

Joseaki Barroak, Urtebarte Pas. 11 - 12 - BILBAO
T. 94 401 01 10

PSE 14416 Arduradun asistentzia



ARANTZA
ETXEBARRIA
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina • ALGORTA

944 307 696

rra zeure buruari ere



Roke Deuna 25 - Getaria. T. 943.140.143 www.saiaszgetaria.com

XV. mendeko dorretxe gotikoa!

Zuen ahalegina, HIRUKAren hauspoa

HIRUKAren parte bihurtu dira, erreportajeak edo elkarrizketak bezainbat, aspalditik proiektu hau babesten duten iragarleak. Hona hemen, gure esker onagaz bateraz, omenaldi xume bat.

Hezkuntza



Kalitatezko irakaskuntza euskaraz
 Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
 94 464 23 64 / 94 464 33 07
 info@betikoikastola.net
 www.betikoikastola.net



JA AGIRRE Euskaltegia
 Heldu Euskarari!
 Algortako etorbidea 104, 48991 Algorta (Getxo)

Ostalaritza

nire aitaren etxea defendatuko dut

ERROMON 1977. ETIK

GURE ETXEA
 taberna

Coja de Ahozros, 14 | Raso-Getxo | T. 94 463 68 88

Areatza, 54 - Plentzia

Gorrendona

94 407 69 18 | Gorrendona



ANDER DEVNA IKASTOLA
 Gatzarriñe Kalea, 47, 48600 Sopela, Bizkaia

aek
 euskara praktikoa



NEBARREBAK TABERNA
 Sabino Arana 20, Berango

UNAI Algortako Etorbidea, 96 944 661 661

ekin
 Bolue, 4 ALGORTA 946 436 638



San Nikolas IKASTOLA
 Areneazpi Kalea, 15, 48991 Getxo, Bizkaia

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

Getxo Getxo

AJURIA TABERNA

MIRARIA DA AJURIA DAGOEN ISILTASUNA

ANDRES CORTINA ZKG. ALGORTA

Janari-dendak

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA 94 464 41 25

HAMILTON IDIOMAS

Dr. Landa, 6/Iberre 9 - 94 676 30 12
 info@didakhilton.com

S O N E

musika eskola
 Eusko Jauriaritzak da-mendua
 • Algortan 1998tik •

saiazgetaria
 HOTELA

Roke Deuna kalea, 25 - GETARIA
 T. 943. 140. 143
 www.siazgetaria.com

Zurikaldai
 NEGURI



Batuta
 945.038.550
 batuta@batuta.com
 info@batuta.com
 Hilerri 10, Altea (Getxo)
 Entrada por Av. de los Diegos

arteskola

1991tik MARRAZKETA ETA MARGOLARITZA AKADEMIA
 ACADEMIA DE DIBUJO Y PINTURA DESDE 1991

94 491 18 87 info@arteskola.net 666 92 19 19 www.arteskola.net

IGASKITEGIA • MARISOUEIRA

ESKARRA
 TABERNA

IGASKITEGIA • MARISOUEIRA

Itorrene Kalea, 1, 48991 Getxo, Bizkaia


izarbide kipula
 SUPERMERKATU EKOLOGIKOA

Sabino Arana 82, LEIOA
 Sakoneta polikrodeggi aurrean
 Etxez etxeko bidalketak: Getxo, Leioa eta Erandio


Gremioak





Loradendak



Optikak



Moda



Ileapaindegia



Klinikak




Gasolindegia



Auto-tailerrak



Elkartek



Estankoak



hirukalagunen txokoa

Parte hartuz, sari ede

Uribekostarren ekarpenari esker egin du bidea HIRUKAk, eta halaxe egingo du hemendik aurrera ere. Egin zaitez HIRUKAlagun eta beheko produktuen zozketan parte hartu ahal izango duzu; eta daborduko baldin bazara, lerro hauen alboko argibideei jarraitu besterik ez daukazu!



Toys Maniatic

Etxeke txikienek olgetan aritzeko joko oparoa dakarkigu hemen; ez galdu aukera!



Arbiren liburuak

Arbi Liburuek sei liburu eder dakartzate zozkatzeko, hirunakako multzo bitan.



Traputxu

Egun hotzenetatik zama babesteko eskuz egindako bufanda birziklatua, nork gura du?



Lakhet

Zilarrez eta harri erdibitxiez osatutako *Sophie* lepoko ederra, eskuz egindakoa.



Pleamarta

Musukoak eskegitzekoa eta horregaz konbinatzeko eskumuturrekoa, aukeran.




Bikool

Edozer gauza leku batetik bestera eroateko Ortzimuga poltsa eraman ezazu!



Wild Waves

Eskuz eta primerako material naturalez egindako poltsa, eskaintza oparoa!



Salty Wood

Azkorri-Gorrondatxen jasotako zur-zatiez egindako arrain polit-polita, zozketarako.

Beheko sariren bat lortzeko zozketan parte hartu gura baduzu, eman ezazu izena HIRUKA.EUS webguneko zozketen atalean urtarilaren 6a (eguztzena) baino lehenago. Zozketa bakoitzeko atal bana egongo da; eman izena dagokion lekuan.

rrak esku-eskura!



Boga garagardoak

Black is beltza II garagardo berriaren seiko kutxa bat eskainiko du aurten Bogak!



Ibaizabalen liburuak

Umeentzako liburu-sorta eder hau eskuratzeko aukera galduko duzu?




Hasteko: kit dotorea

«Zero plastiko» filosofiari helduta bizi gura baduzu, sukaldarako kit honegaz has zaitez.



Marsun ileapaindegia

Urte berriari ondo-etorria egiteko look aldaketa egiteko proposamena duzu hemen.



Oinutsik

Oinetako kailuak kentzeko kiropodia-saioa irabaz dezakezu aurten ere.



Maitia

Arrasateko Maitia dendak emandako Imanol izerdi-jertsea; egundoko saria!



Oveja Creativa

Martin eta Learen abentura zoragarriez gozatu ahal izango dute etxeko txikienek.



Ines Bermejo

Artista getxoztarraren kamiseta eta txapa pertsonalizatu bana, esku-eskura.



Distinto!

Etxean kakorratzean ikasteko primerako sorta duzu aukeran.

Etxera goaz

Birus batek gure bizimoduak hankaz gora ipini dituen honetan, kolokan daude gauza asko, baita Gabonak ere, orain arte ezagutu ditugun modukoak behintzat. Etorkizuna zein izango den ere asmatzea zaila da, pandemiaren bilakae-raren arabera denon osasuna bermatzeko har-tu beharreko segurtasun-neurriek gizartearen sektore denak ukitzen dituztelako, onerako zein txarrerako. Joan dakiela hilabeteotan hur-bileko norbait galdu dutenei gure elkartasunik beroena eta zintzoena.

Hedabideontzat ere ez dira garai gozoak izaten ari; ondorioak berehalakoak izan ez badira ere, COVID-19aren pandemiak euskarazko toki-komunikabideei ekarriko digun kaltea ez da txikia izango; daborduko ondorioak nabaritzen hasiak ditugu. Hori dela eta, zuon, uribekostar-ron, ekarpen txikiak inoiz baino beharrezkoa-goak izango dira proiektu hau sostengatzeko; HIRUKAlagunena eta, noski, iragarleena ere bai. Oparoaldian zein krisialdian, batera ekit-ea berebizikoa da, baita gurean ere.

Sei urte igaro dira abentura honi ekin ge-nionetik, eta ez dira gutxi izan bidean aurki-



tu ditugun oztopoak; murrizketak egitera behartu genuen gure burua orain hiru urte, besteak bes-te. Egunez egun, baina, eskualdeko egunerokota-sunaren eta bitxikerien berri emateko hamaika saiakera egin ditugu, batzuetan asmatuz eta beste batzuetan porrot eginez. Duela urte bi webguneari astindu ederra eman genion garai berrietara ego-kitzeko; oraingoan, aldiz, paperezko edizioaren txanda izango da. Hala, urteotan ingurukook es-katu izan duzuen gurariari erantzuteko, HIRUKA eraberritu bat proposatu gura dizuegu 2021erako, aldizkari-formatu berri eta koloretsu batean, eta etxera zuzen-zuzenean eroateko aukeragaz.

Horretarako, baina, zuen laguntza behar-beha-rrezkoa izango dugu, etxera eramateko zerbitzuen kostuei aurre egiteko, hain zuzen ere. Kontuak ho-rrela, datorren urtean HIRUKAlagun izateko ekar-pen bi izango dituzue aukeran: ohiko 35 eurokoa, gutxienez; eta 60 eurokoa, etxean paperezko edi-zioa jaso gura dutenentzat.

Aldizkari berria denon gustukoa izango dela-koan, urtarrilean izango duzue proiektu horren inguruko denen berri, sakon eta luze; HIRUKA de-nok garelako, denon etxean egon gura dugu. Inoiz bainoago, zu zara giltza! ◀

**KALITATEZKO HEZKUNTZA
EUSKARAZ**

BETIKO
IKASTOLA

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak:
Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

ABENDUA-URTARRILA

PROGRAMAZIOA

KONTZERTUA



EUSKADIKO ORKESTRA

Juanjo Ocón (zuzendaria)

Andoni Martínez Barañano (tenorra)

ABENDUAK 18 19:00 / 24 €

KONTZERTUA



EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA

Beethovenen 250. urteurrena

URTARRILAK 3 12:00 / 3 €

KONTZERTUA



IZARO

ABENDUAK 19 17:00 & 19:30 / 27 €

HAUR ANTZERKIA



LUR

Xake Produksioak

URTARRILAK 15 18:00 / 8 €

prentsa euskaraz, pentsa euskaraz!



Zu zara giltza!

Egunero abentura ezin ederragoan murgiltzen gara euskal prentsa egiten dugunok. Bidaia horretan ezinbesteko lagun zaitugu zu, euskaraz bizi, euskaraz arnastu, euskaraz pentsatu gura duzun hori. Izan zaitez gure bidaide, izan zaitez HIRUKALagun!

Abentura honetako kide izateko: administrazioa@hiruka.eus

hiruka